

BIDEGOIAN / 'Heziz jolastu' egitasmoa abian jarri du Bidegoiango Udalak

Liburutegia gehiago aprobetxatzeko asmoz, eta ikusita etxeetan jostailuak pilatzen direla, Bidegoiango Udalak Heziz jolastu egitasmoa martxan jarri du. Ane Lasa Kultura eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak azaldu duenez, "etxe bakoitzean dagoeneko erabiltzen ez diren jostailuak liburutegira ekartzea eskatzen dugu, gero liburutegian jostailuen txokoa egin dugu eta hortik maileguan hartuko dituzte hurrek jostailuak". Lasak gaineratu duenez, "hurrei erakutsi nahi diegu dena ez dela erostea, trukea ere badagoela, eta horrelako ekimenekin abian jarri daitekeela. Neurrigabeko kontsumoaren aurrean, beste eredu bat bultzatu nahi dugu".

Jostailuekin liburuekin bezala egingo da. Erregistro bat osatuko da jostailu bakoitzeko eta hurrek etxera eraman ahal izango dute hamabost egunez. "Gabonak datozela eta, une aproposa irudituz zaigu egitasmoa martxan jartzeko", esan du Lasak, eta gaineratu: "Ea familiak jostailuak ekartzera animatzen diren". Udaletxera edo liburutegira bertara eraman daitezke jostailuak; azken horretako ordutegia, astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30etik 19:00etara da.